



EBAZPENA, 2023ko apirilaren 11koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Horren bidez zehazten dira Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko eta Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, bai eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletan ere, hutsik dauden Maisu-maistren kidegoko behin betiko lanpostuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioko unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoko langile funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia egiten duen Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko Aginduaren bigarren oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz (2022ko urriaren 14ko EHAA), Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko urtarrilaren 25eko Ebazpenaren bidez argitaratu ziren lehiaketa horretan eskainitako behin-behineko lanpostu hutsak.

Erreklamazioak aurkezteko epea igarota, eta Hezkuntzako sailburuaren 2022ko urriaren 7ko Aginduaren bigarren oinarrian aurreikusitakoarekin bat etorritz, lehiaketa horretan eskainitako behin betiko lanpostu hutsak argitaratzen dira.

Ondorioz, hau

XEDATU DUT:

Lehen artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen I. eranskinean Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetan hutsik dauden behin betiko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Bigarren artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen II. Eranskinean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxe publikoetako zereginak ikasteko geletako ikastetxeetan hutsik dauden behin betiko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.

Hirugarren artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen III. eranskinean Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan hutsik dauden behin betiko lanpostuak, Maisu-maistren kidegoko irakasle funtzionarioen arteko lekualdatze-lehiaketarako deialdiaren bidez betetzeko.



Laugarren artikulua.- Interesatuek gorako errekurtoa jarri ahal izango diote Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, aditzera eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 11a

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA